

«GERNIKA» BERRARGITARATUA

TXILLARDEGI

«Geroak eranen», esan daiteke kasu honetan. Baina, besteak beste, euskal kulturaren alorrean ionarritzat har daitezkeen liburu batzuren berrargitaraketa eskertuko diote beti geroko euskaltzaleek eta abertzaleek «Ediciones Vascas» argitaletxeari. Eta, honi dagokionez, dipamen berezia du «Gernika» aldizkariarenak, hiru liburukitan dotore emana.

Gezurre badirudi ere, 30 urte joan dira «Gernika» aldizkaria, izkutuan eta egarri lehorrez, eskuratzen zitzaigun garai hartatik. «Askatasunean» argitaratua, «deserriari» bizi ziren abertzale multzo batek prestatua, besterik gabe bazuen, frankismo pean esnatzen hasten ginenontzat, halako kutsu liburugarria.

Zer izan da «Gernika» aldizkaria Euskal Herriaren Kondairan?

Azterketa sakona merezi luke gai honek; eta luzaz hitz egin liteke, dudarik gabe. Ez orain eta hemen, jakina. Zilegi bekigu, beraz, lerro nagusi batzuk azpimarratzea.

«Gernika» zatiketa baten ondorio.

Hau ez genekien, noski. Baina orain badakigu; eta xehetasun hau oso garrantzitsua izan daiteke ondoko urteetan abertzaletasunak ezagutuko zituen eztabaidak eta gorabeherak ulertzeko.


Argi eta garbi azaltzen dutenez, aldizkaria zeharo kontrolatu nahi izan zuen PNV-ak («representantes de un cierto racismo extremista»); eta, «vasquismo humanista y pacifista»ren izenean, «Gernika»-berriak, Baiona-ko taldetik bereziz, aurrera jotzea erabaki zuen. Bi bultzaiztaile nagusi saiaketa honetan: Thalamas apaiza, gaur oraindik bizirik eta Isidoro Fagoaga nafartarra, Euskadi-ren alde zerbait egin nahiz, Operak eskaintzen zion loria alde bat utzita. Ohore Fagoaga-ri!

Aita Thalamas-ek, «Esprit» eta Maritain gogoan (eta hau ez zen gutxi garai hartan), «humanismo» eta «paz» hitzak ditu gidari.

Fagoaga-k, berriz, gero eta pisudunago aldizkaria sendotu eta zabaldu ala, **tole-rantzia** du helburu nagusizat, eta **joera kulturzalea** ematen saiatzen zen, gero eta nabarmenkiago.

«Gernika», horretara, eta piskanaka, PNV-ko ez diren euskal idazleen aldizkari bihurtuko zen. Eta zinez interesgarri agertzen zen mementoan (1953-an), garbi aitortzen ez diren arrazoinengatik («por razones derivadas de nuestra posición desplazada») gelditu egin zen.

«Uhin berria»rekiko, halaz ere, zubi gisa agertzen zaigu gaur. Hor ditugu, askotan argitsu eta zorrotz, Federiko Kruttwig eta Jon Mirande, euskaraz eta erdaraz; hor ere, maila desberdinetan mamitsu ari, fraile ezezagun bat: Villasanté-Kortabitarte izenekoa; hor ere Mark Légasse, Jon Etxaide, Txomin Peillen, Iratzeder, gerraondoko lehendabiziko aintzindari; eta orduan beren 30 urteetan. Honegatik bakarrik goresmenak merezi lituzke «Gernika» taldeak.



Pierre LAFITTE

Baina «Gernika»n gerraurreko gizonak ere ageri dira. Hain zuzen ere, PNV-ri buruz halako heterodoxian ibilitakoak. Aita Thalamas eta Fagoagaz gain, jakina, hor ditugu Orixe (erdaraz gehienetan), Altube, López Mendizabal, Justo Garate, C. Carranza, Ibinagabeitia, Ruiz Añibarro, eta abar.

«Humanismo» famatu horrez gain (Euskal Herria erabat zanpatua eta ukatua zen une horretan zer izan ote zitekeen ongi agertzen ez bazaigu ere), **hizkuntza-ren aldeko** aldizkari bihurtu zen hein batez. Oso interesgarriak dira, honi buruz, Henri Gavel irakaslearen lanak; baita Altubek eta Orixe (erdara batuaz!) izan zituzten eztabaidak. Kruttwig-ek ere, erdara batuaz zuzenesten digu Euskaltzaindia-ri buruzko bere txostena; eta Aita Lafitte-k, bere irriño gaiztoaz, frantsesez erantzuten Orixe-ri: «Lettre ouverte a Mr. Nicolas Ormaechea, monsieur et cher bienfaiteur»...

Egin baitugu bide!

«Gernika»ren irakurtzea, horretara, oso ona izan dakieke **gure herria aurrera ote doan** zalantzan daudenei.

Hor dituzue, biak Bidarra-rik ari, Orixe eta Ph. Vegrin: gaztelaniaz eta frantsesez, jakina...

Hor ere, antzeko bikotean, Adolfo de

Larrañaga eta Jean de Arramendy olerkariak. Batak hau dio:

«¿No oiré más el irrintzi natal? ¿Volveré a contemplar mi patrio cielo?» Eta hori Donibane-Lohitzun-en idazten!

Eta Aramendy-k arrápostu:

«O chene, narrateur rustique d'épopées, avec leur vie éteinte et leurs défunes voix...» Eta hau ere Donibanen idazten ari...

Baina badago besterik «Gernika» honetan; eta, hau ez areago luzatzeko, bi puntu bakarrik:

Bata «**Euskadi ala Euskalerría**» eztabaida. Oso interesgarriak dira eman ziren iritziak, Arturo Kanpion-ena barne.

Bestea, berriz, **Eugenia de Mántijo-ri** buruzko gorabeherak. Oso eskandalo handia, jakina, gure Foruen bikaintasuna gorapatzen dutenontzat; baina oso inportantea, hain zuzen, 1856-an Bizkaiko Bartzarreak hartu zuen erabaki lotsagarria.

Beste aldetik ere ageri da urteen joana: «Particularmente en esta mil veces bendita tierra de Francia (hau ere Donibanen idatzia!), donde toda la intelectualidad, con sus variados matices, se ha orientado resueltamente hacia lo universal, dejando de lado todo «chauvinismo» y toda forma de mitología social...»

1948-an idatzia da.

Eta badirudi gaur ez litzatekeela gauza bera idatziko.

Jakina: errebistaren «neutraltasunak» luzaz idatz liteke. Nola uler, esate baterako, zapalduntza osoaz, oporrez, eta abar, ia ezer ez esatea?

Aipamen batzuk badaude, hori bai, dagoen «miseriaz», eta antzera. Baina besterik ez. Kapitalismoari buruz ezer ez. Nola? Zer intelektual mota dira horiek?

Baina honek besterik behar luke.



ORMAETXEA "Orixe"